

## DIRU ITURRIAK

Gure enpresan diru iturri nagusia, botilen salmenta izango da. Botilen produkzioan gastu bat egongo da, baina gero botilaren salmenten etekina atera eta horren bidez dirua eskuratuko dugu. Bezeroak ordaintzerako aukera ezberdinak izan ditzakete hala nola dendan edo internet bidez. Bezeroek erosketa honekin ez dute botila sinple bat erosten, baizik eta botilak ematen duen erosotasuna bakoitzaren egunerokorako, lanean, kirolean edota bizitza normalean.

Honez gain, beste diru iturri desberdin bat izango dugu. Iturri honi “3F” deritzo, ingelesetik dator eta bere esanahia “Friends, Family and Fools” da, hau da, familia, lagunak eta ergela euskaraz. Zure ingurune sozialaz dio eta zure proiektuarengan inbertitu egiten dute zuretzat fidatzen direlako. Diru hori modu desberdinetan jaso daiteke, mesede edota donatibo bat izango balitz bezala, mailegu bezala edota partizipazio bezala ere bai.

Horietako aukera bakoitzak bere ondorioak dakartza, beraz, onda erabaki behar da.

Adibidez, partizipazioak emanez, proiektuaren zati bat galtzen egongo zara eta horrekin kontuz ibili behar da.



